2020

Urretxuko udala

**URRETXUKO UDALAREN ADIERAZPENA**

**SANTA ANASTASIA JAIRIK EZ, EZTA JAI GIRORIK ERE**

2020 URTEA COVID-19ak eragindako larrialdi egoerak gure errealitatea eta mundua goitik behera eraldatu dituen urtea ari da izaten. Beste edozein urtetan egunotan ilusioz beterik ibiliko ginateke gure herriko Santa Anastasia jaiei begira, antolaketa lanetan, jai giroan... Baina **AURTEN EZ, EZINEZKOA DA.**

Uztailean argitasun handiz erabaki zen herritar eta jaietako eragileon artean, jarrera txalogarri bezain arduratsua erakutsiz, aurten ez genituela Santa Anastasia jaiak ospatuko, ez betikoak ezta gaizki deituriko "ez jaiak" ere. Zalantza izpirik gabe, denon osasuna lehenetsiz, eskuzabaltasunez **UKO EGIN BEHAR DIOGU** jaiek berekin dakarten pertsona elkartze eta pilaketari.

**Horregatik Urretxuko Udala osatzen dugun talde politikok bat egiten dugu herri batzarrak hartutako erabakiarekin eta herritarroi mezu hau helarazi nahi dizuegu:**

1.Herritarrok kontuan hartu behar dugu **aurten ez dugula jairik** ospatzen; ez ditzagun jaia egitera edo jende pilaketak egotera bultzatu ahal dituzten ekintza edo jarrerak izan, irailean zehar baina bereziki irailaren 18tik 21era, jaiak izango ziren asteburuan.

2. Beste herri batean bizi zaretenoi, mesedez, gure herrira **festa egitera ez etortzeko** eskatzen dizuegu.

**DECLARACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE URRETXU**

**SIN FIESTAS DE SANTA ANASTASIA, NI AMBIENTE FESTIVO**

El año 2020 está siendo un año en el que la situación generada por la pandemia de la COVID-19 ha transformado de arriba a abajo nuestra realidad y el mundo. En cualquier otro año estos días estaríamos rebosantes de ilusión de cara a las fiestas de Santa Anastasia de nuestro pueblo, en tareas de organización, en ambiente festivo... Pero **ESTE AÑO NO, ES IMPOSIBLE.** En julio se decidió entre urretxuarras y los distintos agentes que participan en las fiestas, de forma unánime y mostrando una actitud tan plausible como responsable, que este año no celebraríamos las fiestas de Santa Anastasia. Ni las fiestas tradicionales, ni las mal llamadas "no fiestas". Sin ningún tipo de duda y primando la salud por encima de todo, **DEBEMOS RENUNCIAR** generosamente a la aglomeración de personas que las fiestas traen consigo.

**Es por eso que los grupos políticos que formamos el Ayuntamiento de Urretxu nos sumamos a la decisión adoptada por la asamblea popular y queremos transmitir a la ciudadanía el siguiente mensaje:**

1. La ciudadanía tiene que saber que este año **no celebramos ninguna fiesta**; no tengamos actos o actitudes que puedan incitar a celebrar la fiesta o a que haya aglomeraciones de gente, durante el mes de septiembre, pero especialmente del 18 al 21 de septiembre, el fin de semana que hubieran sido las fiestas.

2. A quienes vivís fuera del municipio, os pedimos, por favor, que **no vengáis a hacer fiesta** a Urretxu.

3. Urretxuko Udaleko ordezkariok konfiantza osoa daukagu herritarrok beste behin ere elkar zainduko dugula, zentzuz jokatuko dugula, orain artean bezala.

Izan gaitezen arazoaren konponbide eta ez oztopo. Ez diezaiogun utzi birusari gure herrian sakabanatzen eta kontrolatu ezin den egoera batera heltzen. Gure ekintzek ondorio larriak izan ditzakete gugan eta maite ditugun pertsonengan. Izan gaitezen zentzudunak eta jokatu dezagun errespetuz, beranduegi izan baino lehen.

Datorren urtean jaiak ospatu eta elkarrekin egon ahal izateko, inoiz baino gehiago, beharrezkoa da orain neurriak hartu eta elkar zaintzea. Ziur gaude hala egingo dugula.

**ZENTZUZ JOKATU: JAIRIK EZ BADA, JAI GIRORIK EZ DAGOKIO IRAILARI.**

GORA URRETXU ETA URRETXUARRAK.

3. Los y las representantes del Ayuntamiento de Urretxu tenemos plena confianza en que los y las urretxuarras nos cuidaremos una vez más, que actuaremos con sentido común, como hemos hecho hasta ahora.

Seamos la solución y no el obstáculo del problema. No dejemos que el virus se disperse en nuestro pueblo y llegue a una situación que no se pueda controlar. Nuestras acciones pueden tener graves consecuencias sobre nosotros y nosotras y sobre los seres queridos. Seamos sensatos, sensatas y actuemos con respeto, antes de que sea demasiado tarde.

Para que el año que viene se celebren las fiestas y podamos estar juntos y juntas, más que nunca, es necesario ahora tomar medidas y cuidarnos. Estamos seguros/as de que así lo haremos.

**SEAMOS RESPONSABLES: SI NO HAY FIESTAS, NO CORRESPONDE AMBIENTE FESTIVO.**

GORA URRETXU ETA URRETXUARRAK.

URRETXUKO EAJ-PNV, EH BILDU ETA PSE-EE